



JOE SACCO
GAZAKO
OIN-OHARRAK




ITXAROPEN IZPIA





Burua astintzen dute.



Begiak zuri jarri.




Zaharrak berri.




zerbitzari!

Zer dago mē-nuan?



Bonbardaketak!



Hilketak!



Erasoak!



Joan den hileko kontuak —edo joan den urtekoak— gaur izan direla esanda ere, nor ohartuko litzateke?

Dauden hitz guztiak erabili dituzte Bigarren Intifadari buruz, ama arranguratu oro erretratu, bozeramailēen gezur oro aipatu, umiliazio oro azaleratu... eta zer?

Bi hildako!



Bost hildako!



20 hildako!



Duela astebete!



Duela hilabete!



Duela urtebete!



Duela 50 urte.





Gerra
ahaztu
bateko
albo-
kalteei
buruzko
oin-
oharrak
dira hauek.

OIN-OHARRAK

Gerra
ahaztua
1956koa da.
Bi aurkari:
Egipto eta
aliantza
arraro bat
(Britainia
Handia,
Frantzia
eta Israel);

albo-kalteak,
berriz,
gerrilla pales-
tinarren eta
indar israel-
darren arte-
ko erasoak
eta kontrae-
rasoak ziren,
denak Ga-
zako mugan;

eta
oin-
oharrak...

Tira:
oin-ohar
gehienak
bezala,
historiaren
orrialdearen
beheko
partera erori
ziren, eta
hortxe daude
oraindik.

Historiak
ez du oin-
oharren
premia
handirik.

Onenean,
oin-oharrak
ez dira pre-
miazkoak;
txarrenean,
kontakizun
nagusia urar-
dotzen dute.

Lantzean
behin,
edizio
berrituak
agertu aha-
la, Historiak
zaborre-
tara bo-
tatzen ditu
oin-ohar
horietako
batzuk.

Eta
argi
dago
zerga-
tik...

Histo-
riak lan
handia
du.



Orduero
eta mi-
nutuero
ari da
orrial-
deak
sortzen.



Historiari
kontrako
eztarririk
doazkio
gertakari
berriak;
zaharrak,
aldiz,
irentsi
egiten ditu.


1956ko
gerra?

Eing?

Adibidez,
gaur gauetan
Gazan gaude;
gure gainean,
pilotu israel-
darrak zirku-
lutan hegan;
eta hemen
behean, eza-
gutu berri-
dudan palesti-
nar bat bere
Browninga
aztertzen.








ABED



Behin, hiru gindoazen taxi baten atzeko aukian, eta gidaria beste bi hartzera gelditu zen...




haietako bat nire ondoan esertzen saiatu zen...



baina gidariak erabat debekatu zion.



J. SANCIO 8-05



Egun batean, orduko bideo bat ikusi genuen.

Ezerezetik agertutako gazte palestinar batzuk harrika hasten ziren ibilgailu israeldarren kontra, eta israeldarrek eraso egiten zieten.

Abedek nostalgiaz esan zidan lehen intrada zinez altxamendu herrikoia izan zela.

Abed, beste palestinar asko bezala, haserre dago Palestina Askatzeko Erakundeak (PAE) Israelekin sinatu zituen akordioekin. 1993an hasitako prozesu horrek, Osloko Akordioak izenarekin ezagutzen denak, amaiera eman Zion Lehen Intifadari, eta Yasser Arafat eta gainerako lider palestinarrek Tunisiako erbestetik itzuli ziren.

OSLOK HISTERIA PIZTU ZUEN.

ORDUTIK AURRERA, JENDEAK EZ ZIEN HARRIRIK JAURTITZEN ISRAELDARREI, OLIBONDO-ADARRAK BAIZIK.

BAINA EZ GENUEN EZER LORTU OSLOTIK.

Soldadu israeldar gehienak beren postuetara erretiratu ziren arren, okupazioak aurrera jarraitu zuen, lurralde okupatuakoko kolono juduen kopurua bikoizteraino.

LEHEN INTIFADAREN GARAIAN, HERRI HANDIA GINELA USTE NUEN.

ORAIN, ALDIZ, EZ.


GURE LIDERRAK TUNISIAN ZEUDENEAN, HEROITZAT HARTZEN GENITUEN.

OSLOREN ONDORÉN, HONA ITZULTZEAN, ZIREN MODUAN IKUSI GENITUEN.

KAUSA NAZIONALAREN GAINETIK JARRI ZITUZTEN BEREN INTERES PARTIKULARRAK.

JENDEA DA SAKRIFIKATU DENA, ETA LIDERRAK, BITARTEAN, TEL AVIVEN ARDOTO BAT EDATEN, ASKATASUN OSOZ BIDAIAITU DEZAKETELAKO.

"Osloko garaia" tentsio handikoa izan zen okupazio amaiezina gatik eta israeldar zibilen aurkako atentatu suizidengatik. Garai hura 2000ko irailean bukatu zen, Ariel Sharon Israelgo oposizio-buruak, probokazio hutsez, Jerusalemgo Al-Aqsa meskitaren esparrua bisitatu zuenean, juduen Tenpluaren Mendia ere hantxe baitago.



Baina oraingo harri-jaurtiketak iraganeko istiluen oihartzun urrunak dira...



Israeldarrek, berriz, tankeak dituzte, erasoko helikopteroak, bombak jaurtitzen dituzten hegazkinak.



Batzuetan,
bulldozerrekin
eragindako
triskantzak
bisitatzen
ditut
Abedekin.

Honda-
kinetan
eseritako
jendeare-
kin min-
tzo gara.

BESTE
BIZIMODUREN
BAT IMAJINATZEN
DUZU ZURETZAT?
ALA HAIN OHITUTA
ZAUDE, JADA EZI-
NEZKOA ZAI-
ZULA?

AHAL
DUT,
BAI.

BESTE
URTEBETEZ
EGON NAHI DUT
GAZAN, ETA GERO
OSPA EGIN
HIRUZPALAU
URTEZ...

IKASKETAK
BUKATZEKO
BAINA BAITA
MUNDUA IKUSTEKO
ERE, BESTE PERS-
PEKTIBA BATZUK
IZATEKO.

Beste behin,
Abedek
diost...

MENDE-
BALDEKO
ASKATASUN
APUR BAT
DASTATU NAHI
NUKE, BAINA
ITSUTU GABE.

ASKE
SENTITZEN
ZARA GA-
ZAN?

PENTSA-
MENDUZ
ASKE.

Batzue-
tan ez
da hain fi-
losofikoa.

TRAGO
BAT
BEHAR
DUT.

HAU
GUZTIA
AHAZ-
TEKO.

ETA
MOZKOR-
TZEKO.

ISRAEL

EGIPTO

GAZAKO ZERRENDA

GAZA HIRIA

BEIT LAHIYA

BEIT HANOUN

JABALIA

NEZARIM

NUSEIRAT

BUREIJ

MAGHAZI

DEIR EL-BALAH

KFAR DAROM

KHAN YUNIS

GUSH KATIF

RAFAH

Kalalako Gerninala

Kerem Shalom pasabidea

Ele Sinai pasabidea

Erez pasabidea

Nahal Oz pasabidea

Karni pasabidea

Sufa pasabidea

Mediterraneo itsasoa

0 4 8 km

Legend:

- PALESTINAR HIRIAK ETA GUNE IRAIKIAK
- PALESTINAR ERREKUNTATU-EREMUAK ETA ETABIZITZAK
- ISRAELDARREN ASENTAMENDU-GUNEAK
- ISRAELEK KONTROLATUTAKO GUNEAK ETA ERREKUNTATUTAKO MILITARRAK / SIGURTASUN-EREMUAK
- ERREPIDE NAGUSIA

Text:

Hauxe da Gazako Zerrenda, 40 km luze eta, gehienez, 12 km zabal; munduan populazio-dentsitate handiena duen tokietako bat. 2002-2003an bisitatu nuenean, 1,3 milioi palestinar bizi ziren lurraldearen 1/70 inguruan. Gainerakoaren jabe, israeldarrak: batetik, 7.500 kolono judu (asentamenduak 1967an eraiki zituzten, Israelek Gaza hartu zuenean); bestetik, IDIKO soldaduak.


Asentamen-
duen, kolonoen
errepideen eta
checkpointen
kokapenari
esker,
israeldarrek
Gazako eremu
guztiak bereiz
zitzaketen.
Adibidez,
hegoaldea
maiz geratzen
zen Zerrren-
dako beste
tokietatik
inkomunikatu-
ta, IDiren Abu
Houlisko check-
pointagatik.



Gush katif
asentamen-
dura doan
errepideak
(kolonoena)
erdibitu egiten
zuen iparretik
hegora doan
errepidea (pa-
lestinarrena).



kolonoen
autoak
pasabidera hel-
tzen zirenean,
"segurtasun"
arrazoiengatik
edo arrazoirik
gabe, palesti-
narrren trafikoa
geldiarazi
egiten zen...
hamar minutuz,
egun erdiz edo
baita zenbait
egunez ere.



Hegoaldeko
bi populazio-
gunerik han-
dienak Khan
Yunis eta
Rafah dira. Ge-
roago joango
gara Rafahra.
Une honetan,
gure kuartel
nagusia Khan
Yunis da.

Eta gure
aginte-postua,
Abeden etxea,
hiriaren
erdialdean.



Hemen
planifika-
tzen ditugu
egunak...

OTOI-
TZEN
OSTEAN
ELKARTUKO
GARA TI-
POAREKIN.

PLAN
ONA.

jan eta lo
ere, he-
mentxe.